

sanrokeak • Gernika-Lumo



EGUNKARIA

Jende ugari ekarriko du gaur Gernikara Barricadaren kontzertuak.

Rockzale zaharrak

Barricadak eta Rosendo Mercadok euren musika aurkeztuko dute

Josu Bidaguren | GERNIKA-LUMO

Gernikako gaua rock musika gogorraz bustiko dute gaur ere. Barricadaren, Rosendoren eta Emaio- en doinuek pasealekuan bilduko den jendea saltoka jarriko dute San Rockada jaialdiaren laugarren gau honetan. Rosendo eta Barricadak urteen poderioz ikasitakoa erakutsiko dute, eta Emaio- talde gernikarrak, berri, hasiberrien gogo eta indarra erakutsiko du.

Barricadak (Javier Hernan-

dez Boni, Enrique Villarreal *El Drogas*, Alfredo Piedrafita eta Fernando Coronado) 20 urte daramatza oholtzen gainean. Urte horietan guztietan 15 disko grabatu dituzte, eta horietatik 12 estudiokoak dira. Azken lanak, *Besame...*, berriro jarri ditu musika arloan lehenengo lerroan. Taldearen ezaugarriak honakoak dira: musika bortitza, gitarra zikinak, hitz zuzenak eta gaitzespenez jositako hitzak. Barricada estiloa. Azken disko hori aurrekoaren, *Acción direc-*

ta-ren, antzekoa da, eta kritika espezializatuaren oniritzia jaso du. *La Araña* lan berritzaile haren atzetik euren betiko soinura itzuli dira nafarrak, eta ezin emaitza hobeagoak lortu dituzte.

Ordu eta laurden

Zuzenekoak direla eta, *El Drogas*-ek argi dauka ezin direla denbora asko egon musika jotzen. «Ordu bitan musika jotzen aritzeko errepertorioa daukagu, baina... ez da posible.

BARRICADA

20 urte daramatza oholtza gainean, eta 15 disko grabatu ditu; azken lanak lehen postuetan jarri ditu

Barricadak zartada baten modukoa izan behar du. Gorpuzak hori eskatzen digu: ezin gara luzatu izan oholtzen gainean. Ordu eta laurden nahikoa da». Erabaki hori dela eta, taldearen errepertorioko kanta gogoko bat edo gehiago entzun gabe geldituko da zaletu bat baino gehiago.

Barricadak baino urte gehiago daramatza mundu honetan Rosendo Mercado bakarlariak. Madrilgo Carabanchel barrutikoa da. 30 urteko bidea egin du Carabancheleko gitarra jotzaileak. Ñu eta Leño taldeetan jo ostean, bere bidea egin du, eta rock hiritarraren ikono bihurtu da. Bakarlari lez 12 disko atera ondoren, *Canciones para normales y mero dementes* bere lana «baloratu» egin dela uste du gitarra jotzaileak.

Martxoan atera zuen azken diskoa, eta, esan duenez, «oso pozik» dago egindakoarekin. «Lehen aldia da disko bateko kantu guztiekin pozik nagoena,

beste lan batzuetan gauza batzuk falta zirela irizten nuen, baina honakoan ez zait horrelakorik gertatu». Ez da harritzekoa egindakoarekin kontent egotea, horrenbeste urte oholtzen gainean izan ostean eta kritika eta publikoaren oniritzia jaso ostean.

Zuzenekoak Carabancheletik

Rosendok honela definitzen du *Canciones para normales y mero dementes*: «Asko kostatzen zait ohikotik ateratzea, rock-and-roll eta gitarra jotzaile asko entzun dut, hori delako gehien gustatzen zaidana, eta hor dago sustraituta nik egiten dudana musika, ez nago hortik ateratzeko prestatua». Hala ere, aurreko diskoetatik «desberdintzen den lana» da *Canciones para normales y mero dementes*.

Rosendoren ezaugarri nagusiatarikoa zuzenekoak da. Orain dela pare bat urte, Carabancheleko kartzelan grabatu zuen zuzeneko disko bat, *Siempre hay una historia en directo...*; lan horrekin urrezko diskoa lortu zuen.

Lan horretan Rosendoren lan garrantzitsuenak biltzen dira. Gernikan, klasiko horiek eta disko berriko kantuak ere entzun ahal izango dira gaur gauean.

Okindegia - LABAKOA-

☎ : 94 625 09 44
94 625 33 19 / 42 95
94 625 23 43 / 56 22

Don Tello, 6
GERNIKA

ZEPELIN
DISKO - TABERNA
Jaietan giro euskaldun
eta oso jatorra
Miguel de Unamuno kalea, 1 - GERNIKA

Bloke, Bobedilla, Zintarri, Tubo, Ladrillo akustiko eta Poste LANTEGIA
LECEAGA, s.a.
PREFABRIKATUAK
Goiko Ibarra, z/g. - 33 Kutxa - GERNIKA - 946250381 tel.

ELEKTRIZITATEA
ARGI - OLA, S.L
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ORO HAR
• ENPRESAK MANTENTZEA • KONTROL ETA MANIOBRA ARMAIRUAK
• PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
Ibarra Kalea, 19 • 148 P.K. • Tel.: 94 625 57 13 • BIZKAIA

Seber Altube
Ikastola
"GERNIKA"
IRAKASKUNTZA
KOOPERATIBA
Zearreta, z/g - 627 00 03 tel. - 94 627 01 53 faxa - GERNIKA
ARGITU DAGIGUN ETORKIZUNA EUSKARA ZABAL HADI HERRIRA

Andoni Elorriaga
JOYERÍA
Bitxi - tailerra
Taller de Joyería
Plaza San Juan Ibarra
c/ El puerto, 1
Tel. 94 625 5945 GERNIKA

GRÁFICAS GAUBECA
INPRIMAKI MOTA GUZTIAK
BEKOIBARRA, 15
TEL.: 34 94 625 02 74
FAXA: 34 94 625 52 54
E-MAIL: admo@comunired.com
www.grafgau.com
48300 GERNIKA-LUMO - Bizkaia

GYREA ALTZARIAK
Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu !!
LOGELAK • JANGELAK • TRESILOAK
Karlos Gangoiti, 4 Tf.. 94 625 20 76 GERNIKA

Arrien Optika
• Optiko-optometrista • Mota guztietako betaurrekoak
• Ukipen lenteak • Eguzkitarako moda
Osakidetzaen programari atxekitutako optika
Urkieta kalea, 10 48300 Gernika Bizkaia Tel./Fax: 94 625 63 63

aterpe
taberna
Fray Martín de Murua, 1
Tel. 94 625 74 84
48300 GERNIKA
BIZKAIA